

16/11 IRIZPENA

Maite Alonso, presidentea
Xabier Aizpurua
Juan Carlos Jauregui
Isabel Kapanaga
Mari Tere Ojanguren
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2016ko abenduaren 20ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Hezkuntza Sailaren menpeko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan irakasle espezialista eta adituen kontratazioa arautzeko Dekretu proiektuari buruzkoa.**

I. AURREKARIAK

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorriaren buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak bere 33.2 artikuluan aurreikusten du Lanbide Heziketako profesional espezialistaren figura juridikoa.

Maiatzaren 3ko Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoak mantendu egiten du irakasle espezialistaren figura lanbide heziketan eta zabaldu egiten du irakaskuntza artistikoetara eta hizkuntza- eta kirol-irakaskuntzara.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak bere hamahirugarren xedapen gehigarriaren bigarren atalean dio Irakaskuntzako Kidego eta Eskaletako funtzionarioek beteko dituztela irakasle lanpostuak, lanpostu zerrendek ezarritakoaren arabera. Salbuespen gisa, lan kontratudun langileentzat erreserbatu ahal izango dira izaera berezia duten lanpostuak, hau da, prestakuntza akademiko zehatz bati ez dagozkionak edota existitzen diren Kidego edo Eskaletan sailkatu ezin direnak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatez kanpoko Irakaskuntzako Kidegoen otsailaren 19ko 2/1993 Legearen hamargarren xedapenak dio beren jarduera lan munduan garatzen duten profesionalak irakasle espezialista gisa kontratatu daitezkeela, lanbide heziketako arlo edo ikasgai jakin batzuk emateko. Lege horrexen hamaikagarren xedapenak musika eta arte eszenikoen irakaskuntzara zabaltzen du irakasle espezialistak kontratatzeke aukera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Ikastetxe Bateratuak arautzen dituen apirilaren 1eko 46/2014 Dekretuak bere 30. artikuluan ezartzen du lanbide heziketako ikastetxe publiko bateratuek adituen zerbitzuak kontratatu ditzaketela jarduera programatuak eman eta garatzeko edo zerbitzu-eskaintzak egiteko, betiere ikastetxean ez badago irakasle kualifikaturik horretan jarduteko libre dagoenik.

II. EDUKIA

Dekretu proiektu honek zortzi artikulua dauzka, xedapen gehigarri bat eta bi azken xedapen.

Lehen artikulua dio arauaren xedea dela irakasle espezialista eta adituen kontratazioa arautzea Hezkuntza Sailaren menpeko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan.

2. artikulua hainbat irizpide ezartzen ditu profesional horiek zein ikasgai edo modulutan lan egin dezaketen zehazteko.

3. artikuluan zehazten da zein baldintza bete behar dituzten irakasle espezialistek eta irakasle adituek kontratatutako izateko.

4. artikuluan aipatzen dira hautaketa prozesuetan errespetatu behar diren printzipioak.

5. artikulua kontratazioaren ezaugarriak finkatzen ditu eta 6. artikulua ordainsariei buruzkoa da.

7. artikuluan arautzen dira profesional horien funtzioak, eskubideak eta betebeharrak eta zigor-erregimena. 8. artikulua dio zentroko organoetan parte har dezaketela.

Xedapen gehigarrian ospea eta sona duten pertsonak kontratatzeke aukera jasotzen da.

Azken lehen xedapenak baimena ematen du araudia garatzeko eta bigarrenak indarrean noiz sartuko den zehazten du.

III. BALORAZIOA ETA PROPOSAMENAK

Dekretu proiektu honen helburua da irakasle espezialista eta adituen kontratazioa arautzea; figura horiek agertzen ziren aurreko araudietan, baina orain hedatu egin dira erregimen bereziko irakaskuntzen esparrura, hau da, irakaskuntza artistikoetara eta hizkuntza- eta kirol irakaskuntzetara. Lanbide Heziketako ikastetxe bateratuak arautzen dituen dekretu proiektuari buruzko Kontseiluaren 12/10 irizpenak irakasle adituaren figura jasotzen du eta proposatzen du berau kontratatzeke baldintzak eta prozedurak zehaztea, *publizitate, meritu eta gaitasun irizpideak* erabiliz (arauaren artikuluetan ere jasota daude printzipio horiek).

Ospea eta sona duten pertsonak kontratatzeke aukera arautzen duen xedapen gehigarri bakarrari dagokionez, ulertzen da komenigarria izan litekeela zenbait esparrutan, baina Kontseiluaren ustez gehiago zehaztu behar da zein kasu eta baldintzatan kontratatu daitezkeen pertsona horiek.

Batzorde Iraunkorrek oniritzia eman dio arau-proiektu honi. Positibotzat jotzen du ikastetxe publikoetan horrelako irakasleak kontratatzeke prozedura arautzea eta eskatzen du zorrotz bete daitezela prozeduran eskatzen diren baldintzak.



Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2016ko abenduaren 20an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Sin.: Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILBURUA